

PROBA ESPEZIFIKOA

2022ko PROBA

**ENPRESAREN
EKONOMIA**

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2022ko MAIATZA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

ECONOMÍA DE LA
EMPRESA

JARRAIBIDEAK

Probaren iraupena: ordubete

Hona hemen azterketaren atalak eta atal bakoitzaren balioa:

2 GALDERA TEORIKO, guztira 3 puntu balio dutenak. Galdera bakoitzak gehienez 1,5 puntu balio du.

2 PROBLEMA, guztira 4 puntu balio dutenak. Atal honetan, ikasleak hirutik bi problema egin behar ditu. Problema bakoitzak gehienez 2 puntu balio du.

TEST MODUKO 10 GALDERA, hiru edo lau erantzun dituztenak aukeran eta bakarra da zuzena; guztira 3 puntu balio dute. Erantzun zuzen bakoitzak 0,3 puntu balio du; okerreko erantzun bakoitzagatik 0,1 puntu galduko da, eta ez erantzuteak ez du punturik emango. Atal honetako erantzunen batura osoa ez da inoiz negatiboa izango.



GALDERA TEORIKOAK:

- a) Azaldu zein izan ziren planifikazio zentraleko sistema ekonomikoaren mugak. (1,5 puntu)
- b) Identifikatu sozietate anonimo baten funtsezko bost ezaugarri. (1,5 puntu)

PROBLEMAK:

- 1. Iazko gabonetan, loteria tokatu zitzaion Juneri, eta erabaki du inbertsio bat egitea eta sariaren zenbateko osoa (200.000 euro) bere jabetxea irekitzera bideratzea. Horretarako, jotzen du inbertsioaren iraupena lau urtekoa izango dela eta inbertsio horren kobrantzak eta ordainketak hauek izango direla:

URTEAK	KOBRANTZAK	ORDAINKETAK
1	60.000 €	20.000 €
2	100.000 €	30.000 €
3	150.000 €	50.000 €
4	300.000 €	100.000 €

Hau eskatzen da:

- a) Payback-a edo berreskuratze-epea kalkulatzeko. (0,75 puntu)
- b) Inbertsioa errentagarria den ala ez zehazteko, BEGaren (balio eguneratu garbia) irizpidearen arabera, baldin eta jotzen bada eskatzen den errentagarritasuna edo deskontu-mota % 6 dela. (Kalkulua: 1 puntu); (azalpena: 0,25 puntu)



ENPRESAREN EKONOMIA

ECONOMÍA DE LA
EMPRESA

2. Torlojugintzako enpresa batek erabaki du 2021. urtean 15 langile kontratatzea. Langile horiek 300 egunez lan egingo dute egunean 8 orduz; enpresak jotzen du langile horiek 80.000 pieza ekoitzi behar dituztela urte horretan.

Bestalde, 2022. urtean enpresa berak 100.000 pieza ekoiztea aurreikusten du; horretarako, aurreko urtean baino hiru langile gehiago erabiliko ditu, lanegunak eta orduak aurreko urtean bezala mantenduta.

Hau eskatzen da:

- Urte horietako produktibitateak kalkulatzeko. (1,2 puntu)
- Urte horietan produktibitatean izandako aldaketa kalkulatzeko eta komentatzeko. (Kalkulua: 0,5 puntu; azalpena: 0,3 puntu.)

3. Nanuk SI enpresak ondare-datu hauek aurkeztu ditu:

Kapital soziala	???	€
Ordenagailuak	10.000	€
Lokalak	200.000	€
Izakinak	5.000	€
Ogasun Publiko hartzekoduna	6000	€
Bezeroak	9.000	€
Aulkiak eta mahaiak	20.000	€
Eskudirua	1.000	€
Erreserbak	7.000	€
Bankuak	4.000	€
Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak	40.000	€
Furgoneta	5.000	€
Hornitzaileak	10.000	€

Hau eskatzen da:

- Enpresaren egoera-balantzea egitea. (1 puntu.)
- Errotazio-funtsa kalkulatzeko eta haren emaitza grafiko baten bidez interpretatzeko. (Kalkulua: 0,5 puntu; interpretazioa: 0,5 puntu.)



TEST MODUKO GALDERAK

Erantzun zuzena markatzeko, inguratu letra zirkulu batez.

1. Enpresa txiki eta ertainen aldean, tamaina handiko enpresek ezaugarri hauek dituzte:
 - a) Malguagoak eta moldagarriagoak dira.
 - b) Maila teknologiko okerragoa dute.
 - c) Finantzatzeke aukera hobeak dituzte.
 - d) Aurrekoetako bat ere ez.

2. Errentagarritasun-atalasearen edo puntu hilaren gainetik:
 - a) Enpresak mozkinak lortzen ditu.
 - b) Enpresak galerak ditu.
 - c) Enpresak porrot egiten du.
 - d) b eta c.

3. Stocka haustek hau esan nahi du:
 - a) Produktu faltagatik eskaerei ezin aurre egitea.
 - b) Biltegian zenbait matxura izatea.
 - c) Biltegiratutako salgaien narriadura.
 - d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

4. Sozietate mugatu batean:
 - a) Bazkideek PFEZa ordaintzen dute.
 - b) Kapitala akziotan banatuta dago.
 - c) Bazkideek sozietatearen konpromisoen erantzun mugagabea dute.
 - d) Eratzeko gutxieneko kapitala 3.006 € da.

5. Langabezia-tasa kalkulatzeko:
 - a) Langabedian dagoen populazioaren eta populazio ez-aktiboaren arteko zatidura.
 - b) Langabedian dagoen populazioaren eta populazio osoaren arteko zatidura.
 - c) Langabedian dagoen populazioaren eta populazio aktibo osoaren arteko zatidura.
 - d) Populazio aktibo osoaren eta langabedian dagoen populazioaren arteko zatidura.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2022ko MAIATZA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

6. Hauek dira marketin-mixaren elementuak:
 - a) Prezioa, produktua, sustapena eta banaketa.
 - b) Prezioa, produktua, biltegiatzea eta sustapena.
 - c) Produktua, sustapena, biltegiatzea eta banaketa.
 - d) Aurrekoetako bat ere ez.

7. Diruzaintza-ratioak enpresak honetarako duen gaitasuna neurtzen du:
 - a) Inbertsioak hautatzeko.
 - b) Bere baliabideak erabiltzeko duen eraginkortasuna neurtzeko.
 - c) Mozkinak sortzeko.
 - d) Epe laburreko ordainketei aurre egiteko.

8. Osagai hauetako zein ez da eskari agregatuaren parte?
 - a) Kontsumo pribatua.
 - b) Enpresen inbertsioa.
 - c) Aurrezki pribatua.
 - d) Estatuaren gastua.

9. Auto-kontzesionario bat sektore honetako enpresatzat hartzen da:
 - a) Zerbitzu-sektorea.
 - b) Industria-sektorea.
 - c) Bigarren sektorea.
 - d) Lehen sektorea.

10. Enpresa baten urteko kontuak hauek dira:
 - a) Balantzea, memoria eta amortizazio-fluxuen egoera.
 - b) Galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera eta balantzea.
 - c) Memoria, maniobra-funtsa eta galdu-irabazien kontua.
 - d) Maniobra-funtsa, ondare garbiaren aldaketen egoera eta balantzea.



**EBAZPENA ENPRESAREN EKONOMIA
(2022ko maiatza)**

GALDERA TEORIKOAK:

- a) Azaldu zein izan ziren planifikazio zentraleko sistema ekonomikoaren mugak. (1,5 puntu)
1. **Pizgarririk eza: Estatuak ondasunen eta zerbitzuen prezioak eta soldatak zehazten zituenez, enpresak ez ziren haien artean lehiatzen eta langileak motibaziorik gabe zeuden. (0,5 puntu)**
 2. **Gehiegizko burokrazia: Beharrezkoa zen burokrazia pixka bat sistema osoa kontrolatzeko, baina sistema neurritz gain handitu zen, eta horrek eraginkortasun falta eta erabakiak hartzeko moteltasuna eragin zituen. (0,5 puntu)**
 3. **Aurreikuspenetan huts egitea: Aurreikuspenak ez ziren fidagarriak, ez baitzuten ekonomiaren bilakaera erakusteko adierazlerik, hala nola salmentak, prezioak eta abar. (0,5 puntu)**
- b) Identifikatu sozietate anonimo baten funtsezko bost ezaugarri (1,5 puntu)
1. **Sozietatea eratzeko gutxieneko kapitala 60.000 € da. (0,3 puntu)**
 2. **Bazkideen erantzukizuna kapital-ekarpenetara mugatuta dago. (0,3 puntu)**
 3. **Sozietatearen izena honela ezarriko da: izena eta jarraian S.A. edo Sozietate Anonimoa (0,3 puntu).**
 4. **Sozietatea formalizatzeko bazkide bat edo gehiago behar da, eta bazkideak pertsona fisikoak nahiz juridikoak izan daitezke. (0,3 puntu)**
 5. **Sozietatearen akzioak eskualdatzea librea da, sozietatea Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoen unetik. (0,3 puntu)**
 6. **Sozietate anonimoek sozietateen gaineko zerga ordaintzen dute. (0,3 puntu)**



PROBLEMAK:

1. lazko gabonetan, loteria tokatu zitzaion Juneri, eta erabaki du inbertsio bat egitea eta sariaren zenbateko osoa (200.000 euro) bere jatetxea irekitzera bideratzea. Horretarako, jotzen du inbertsioaren iraupena lau urtekoa izango dela eta inbertsio horren kobrantzak eta ordainketak hauek izango direla:

URTEAK	KOBRANTZAK	ORDAINKETAK
1	60.000 €	20.000 €
2	100.000 €	30.000 €
3	150.000 €	50.000 €
4	300.000 €	100.000 €

Hau eskatzen da:

- Payback-a edo berreskuratze-epea kalkulatzeko. (0,75 puntu)
- Inbertsioa errentagarria den ala ez zehazteko, BEGaren (balio eguneratu garbia) irizpidearen arabera, baldin eta jotzen bada eskatzen den errentagarritasuna edo deskontu-mota % 6 dela. (Kalkulua: 1 puntu); (azalpena: 0,25 puntu)

$$BEGa = -200.000 + (60.000 - 20.000)/(1 + 0.06)^1 + (100.000 - 30.000)/(1 + 0.06)^2 + (150.000 - 50.000)/(1 + 0.06)^3 + (300.000 - 100.000)/(1 + 0.06)^4$$

$$BEGa = -200.000 € + 37.735,85 € + 62.299,75 € + 83.961,93 € + 158.428,39 € = 142.426 € (1 puntu)$$

Inbertsioa errentagarria da, BEGa 0 baino handiagoa delako eta etekinak ematen dituelako (0,25 puntu)

Payback-a



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

2022ko MAIATZA

ENPRESAREN EKONOMIA

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

0 urtea 200.000 €

1. urtea 40.000 €

2. urtea 70.000 €

3. urtea 100.000 € (hemendik 90.000 € behar ditugu)

12 hilabete ----- 100.000 €

X ----- 90.0000 €

10,8 hilabete

Berreskuratzeko epea: 2 urte eta 10 hilabete

Puntuazioa: 0,75 puntu

Torlojugintzako enpresa batek erabaki du 2021. urtean 15 langile kontratatzea. Langile horiek 300 egunez lan egingo dute egunean 8 orduz; enpresak jotzen du langile horiek 80.000 pieza ekoizti behar dituztela urte horretan.

Bestalde, 2022. urtean enpresa berak 100.000 pieza ekoiztea aurreikusten du; horretarako, aurreko urtean baino hiru langile gehiago erabiliko ditu, lanegunak eta orduak aurreko urtean bezala mantenduta.

Hau eskatzen da:

- Urte horietako produktibitateak kalkulatzeko. (1,2 puntu)
- Urte horietan produktibitatean izandako aldaketa kalkulatzeko eta komentatzeko. (Kalkulua: 0,5 puntu; azalpena: 0,3 puntu.)

a)

$$P_{2021} = \frac{\text{produkzioa}}{\text{erabilitako lanorduak}} = \frac{80.000}{15 \cdot 8 \cdot 300} = \frac{80.000}{36.000} = 2,22 \text{ pieza/ordu (0,6 puntu)}$$



ENPRESAREN EKONOMIA

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

$$P_{2022} = \frac{\text{produkzioa}}{\text{erabilitako lanorduak}} = \frac{100.000}{18 \cdot 8 \cdot 300} = \frac{100.000}{43200} = 2,31 \text{ pieza/ordu (0,6 puntu)}$$

b)

$$\frac{P_{2022} - P_{2021}}{P_{2021}} * 100 = \frac{2,31 - 2,22}{2,22} * 100 = \% 4,05 \text{ (0,5 puntu)}$$

Produktibitatea % 4 handitu da urte batetik bestera, eta arrazoiak hauek izan daitezke:

- Lan-pizgarri handiagoak (soldatak eta lan-baldintzak) (0,1 puntu)
- Antolaketa-sistema hobek, efizienteagoak. (0,1 puntu)
- Hobekuntza langileen prestakuntzan. (0,1 puntu)

2. Nanuk SI enpresak ondare-datu hauek aurkeztu ditu:

Kapital soziala	???	€
Ordenagailuak	10.000	€
Lokalak	200.000	€
Izakinak	5.000	€
Ogasun Publiko hartzekoduna	6.000	€
Bezeroak	9.000	€
Aulkiak eta mahaiak	20.000	€
Eskudirua	1.000	€
Erreserbak	7.000	€
Bankuak	4.000	€
Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak	40.000	€
Furgoneta	5.000	€
Hornitzaileak	10.000	€

Hau eskatzen da:

- Enpresaren egoera-balantzea egitea. (1 puntu.)
- Errotazio-funtsa kalkulatzeko eta haren emaitza grafiko baten bidez interpretatzeko. (Kalkulua: 0,5 puntu; interpretazioa: 0,5 puntu.)

EGOERA-BALANTZEA


AKTIBOA		ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	
AKTIBO EZ-KORRONTEA	235.000	ONDARE GARBIA	198.000
Ibilgetu ukiezina	0	Funts propioak	198.000
		Kapital Soziala	191.000
		Erreserbak	7.000
Ibilgetu materiala	235.000		
Eraikuntzak	200.000		
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	10.000		
Altzariak	20.000		
Garraio-elementuak	5.000		
		PASIBO EZ-KORRONTEA	40.000
Ondasun higiezinetakoko inbertsioak	0	Epe luzeko zorrak	40.000
		Kreditu-erakundeekiko epe luzeko zorrak	40.000
Epe luzeko finantza-inbertsioak	0		
AKTIBO KORRONTEA	19.000	PASIBO KORRONTEA	16.000
Izakinak	5.000	Epe laburreko zorrak	

Salgaiak	5.000		
Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	9.000		
Bezeroak	9.000		
		Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	16.000
Epe laburreko finantza-inbertsioak		Hornitzaileak	10.000
		Ogasun Publiko hartzekoduna.	6.000
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	5.000		
Bankuak eta kreditu-erakundeak, ageriko kontuak, euroak	4.000		
Kutxa, euroak	1.000		
AKTIBOA GUZTIRA	254.000	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	254.000



ENPRESAREN EKONOMIA

ECONOMÍA DE LA EMPRESA



Maniobra-funtsa = Aktibo korrontea - Pasibo korrontea

Maniobra-funtsa = (Ondare garbia + Pasibo ez-korrontea) - Aktibo ez-korrontea

MANIOBRA-FUNTSA: 3.000

Maniobra-funtsa: Epe luzeko baliabideek finantzatzen duten aktibo zirkulatzailaren zatia da. MFa positiboa denean, zorrei aurre egiteko gaitasuna ziurtatuta dago



TEST MODUKO GALDERAK

Erantzun zuzena markatzeko, inguratu letra zirkulu batez.

1. Enpresa txiki eta handien aldean, tamaina handiko enpresek ezaugarri hauek dituzte:
 - a) Malguagoak eta moldagarriagoak dira.
 - b) Maila teknologiko okerragoa dute.
 - c) **Finantzatzeko aukera hobeak dituzte.**
 - d) Aurrekoetako bat ere ez.

2. Errentagarritasun-atalasearen edo puntu hilaren gainetik:
 - a) **Enpresak mozkinak lortzen ditu.**
 - b) Enpresak galerak ditu.
 - c) Enpresak porrot egiten du.
 - d) b eta c.

3. Stocka haustek hau esan nahi du:
 - a) **Produktu faltagatik eskaerei ezin aurre egitea.**
 - b) Biltegian zenbait matxura izatea.
 - c) Biltegirotutako salgaien narriadura.
 - d) Aurrekoetako bat ere ez da zuzena.

4. Sozietate mugatu batean:
 - a) Bazkideek PFEZa ordaintzen dute.
 - b) Kapitala akziotan banatuta dago.
 - c) Bazkideek sozietatearen konpromisoen erantzun mugagabea dute.
 - d) **Eratzeko gutxieneko kapitala 3.006 € da.**

5. Langabezia-tasa kalkulatzeko:
 - a) Langabezian dagoen populazioaren eta populazio ez-aktiboaren arteko zatidura.
 - b) Langabezian dagoen populazioaren eta populazio osoaren arteko zatidura.
 - c) **Langabezian dagoen populazioaren eta populazio aktibo osoaren arteko zatidura.**
 - d) Populazio aktibo osoaren eta langabezian dagoen populazioaren arteko zatidura.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

2022ko MAIATZA

ENPRESAREN EKONOMIA

**ECONOMÍA DE LA
EMPRESA**

6. Hauek dira marketin-mixaren elementuak:
- a) **Prezioa, produktua, sustapena eta banaketa.**
 - b) Prezioa, produktua, biltegiatzea eta sustapena.
 - c) Produktua, sustapena, biltegiatzea eta banaketa.
 - d) Aurrekoetako bat ere ez.
7. Diruzaintza-ratioak enpresak honetarako duen gaitasuna neurtzen du:
- a) Inbertsioak hautatzeko.
 - b) Bere baliabideak erabiltzeko duen eraginkortasuna neurtzeko.
 - c) Mozkinak sortzeko.
 - d) **Epe laburreko ordainketei aurre egiteko.**
8. Osagai hauetako zein ez da eskari agregatuaren parte?
- a) Kontsumo pribatua.
 - b) Enpresen inbertsioa.
 - c) **Aurrezki pribatua.**
 - d) Estatuaren gastua.
9. Auto-kontzesionario bat sektore honetako enpresatzat hartzen da:
- a) **Zerbitzu-sektorekoa.**
 - b) Industria-sektorekoa.
 - c) Bigarren sektorekoa.
 - d) Lehen sektorekoa.
10. Enpresa baten urteko kontuak hauek dira:
- a) Balantzea, memoria eta amortizazio-fluxuen egoera.
 - b) **Galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera eta balantzea.**
 - c) Memoria, maniobra-funtsa eta galdu-irabazien kontua.
 - d) Maniobra-funtsa, ondare garbiaren aldaketen egoera eta balantzea.



GALDERA TEORIKOAK:

a)

BLOKEA	EZAGUTZA-ADIERAZLEAK
1	1.3

b)

BLOKEA	EZAGUTZA-ADIERAZLEAK
2	2.7

PROBLEMAK

1

BLOKEA	EZAGUTZA-ADIERAZLEAK
2	2.24

2

BLOKEA	EZAGUTZA-ADIERAZLEAK
2	2.15

3

BLOKEA	EZAGUTZA-ADIERAZLEAK
3	3.1 ETA 3.5



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
HAUTAPROBAK 25 URTETIK
GORAKOAK

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

2022ko MAIATZA

ENPRESAREN EKONOMIA

ECONOMÍA DE LA
EMPRESA

TEST MODUKO GALDERAK

TEST GALDERA	BLOKEA	EZAGUTZA-ADIERAZLEA
1	2	2.4
2	2	2.17
3	2	2.10
4	2	2.7
5	1	1.8
6	2	2.22
7	3	3.9
8	1	1.5
9	2	2.3
10	3	3.8